

Balorezko proposamena

Gure enpresa maskoten egoitza bat da, eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu; lehenengoz, egoitza bat; bidaietan, larrialdietan, lanean... pertsonak maskotak utzi ditzaten. Beste zerbitzu bat albaitaritza izango da; albaitari talde bat gure zentrora joango da hilero han dauden maskotei azterketa bat egitera, horrela, ziurtatuko gara gure maskotak osasun bikaina dutela. Zerbitzu hau maskotak gurekin uztea erabakitzen duten familia guztiei eskaintzen zaie ere, plus bat ordainduz.

Aldi berean, babesle batekin lan egiten dugu. Familiak ez dituzten maskotek gure egoitzan bizi ahal izateko eta nahi izatekotan, jende nagusiaren etxera eramateko; konpainia izateko. Izan daiteke bakarrik eguna pasatzera joatea, ala gauean etxean bertan geratzea, hori bezeroaren araberakoa izango da.

Honekin batera, eskolei bisitak gure egoitzara eskainiko dizkiegu. Horrela haurrak txakurrekin eta katuekin egon dezakete eta animalien utzikieriaz kontzientziatuko dira, etorkizunean maskotak ez abandonatzeko nahian. Eskolak bisitak nahi ez izatekotan, beste zerbitzu bat eskaintzen dugu. Gure proiektuaren ideia gustoko badute, hitzaldiak jasotzeko aukera daukate eskolan bertan.

Enpresaren zerbitzuaren bitartez biztanleria osoaren ongizatea bilatzen dugu; bai maskotena bai gizakiena. Gainera, aurkeztutako datuak kontuan izanda, maskota asko, Bizkian konkretuki, laguntza behar dute eta gure zerbitzuarekin arazo honekin amaitu nahi dugu. Beste aldetik, aiton-amonon bakardadeari lagundu ahal diogu gure txakurren konpainiarekin.

Gure helburua enpresa honekin, maskoten egoera hobetzea da jabeek behar duten bakoitzean. Eskaintzen dugun zerbitzuarekin, jabeak libre ez daudenean zainduta egongo dira. Aldi berean, daukagun beste helburu bat jende nagusia laguntzea da konpainia eskaintzen. Horrela, 2 arazo konpontzen ditugu: jendeak maskotak leku ziur batean utzi ahal izatea, eta jende nagusia bakarrik ez egotea. Gure hotela ondo funtzionatzeko eta arazoak ez

izateko, animalia bat adineko pertsona baten etxera eraman aurretik, aitona-amonen beharrak eta gaixotasunak kontuan hartuko ditugu, gehien lagunduko dien maskota etxera eraman ahal izateko.

Aurkitu ditugun datuetan, argi ikusten da bai Bizkaian bai Espainian maskotekin hainbat arazo daudela, jende askok bere animaliak abandonatzen baititu. Eta gainera, ez daude hainbeste pertsona animaliak adoptatzen dituztenak. *Onda Vasca* aldizkariak argitaratu zuen bezala, 2023an hainbat erakunde 286.000 maskota baino gehiago hartu zituzten kaleetatik; 170.000 txakur eta 116.000 katu inguru. 2023an animaliak abandonatzeko arrazoi nagusia nahi ez zituzten kumaldiak izan zen, %15a zehazki. Beste arrazoi bat, animaliangan interesa galtzea izan zen, %13a konkretuki. Orduan, maskoten abandonoa hain altua den bitartean, maskota guztien erdia ez du etxe bat aurkitzen; 2023an, %45a, *Affinity* fundazioak adierazten duen bezala.

Beste aldetik, bakarrik bizi diren aitona-amonen ehunekoa urteekin handituz joan da. Bizkaia-ri buruz hitz egitean, 65 urtetik gorako 60.000 pertsona inguru bakarrik bizi direla ikus dezakegu *BBK-k* argitaratu zuen bezala. Espainia aztertzean, *INEk* grafiko bat eskaintzen digu non ikusten dugun herrialde osoan 5.000.166 zahar baino gehiago bakarrik bizi direla. Honen arazo nagusia adinekoek patologia psikologiko eta fisikoak garatzeko arrisku handiagoa dutela da; hainbat faktoren ondorioz: bakardadea, maite dituzten pertsonen galera, osasun-arazoak eta gizarte-ingurune aldaketak. Horregatik, enpresa honen bitartez arazo hauek murriztea nahi dugu ahal ditugun pertsona guztiei lagunduz.

Hau da, lehen aipatu dugun bezala, gure proiektuak funtzio sozial bat izatea du xedez.

Jende nagusiarekin daukagun konpromisoa, eta eskolekin ditugun akordioak, gure enpresa, enpresa berritzaile bat egiten du. Nahiz eta beste egoitza batzuk existitu, gu ez gara bakarrik animaliak laguntzera mugatzen, baizik eta haurrak eta aitona-amoneekin lankidetzat estu bat izaten saiatzen gara.